

Funtzesko baliabideak

Gure negozio eredua arrakastatsua izateko, beharrezkoak izango diren lau baliabide mota desberdinak erabiliko ditugu, hala nola baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak, alokatuak edo erositakoak izatea ez du garrantzirik.

Gure enpresak baliabide fisikoak behar ditu eragiketak optimizatzeko, produktibitatea hobetzeko eta hazkunde iraunkorra bermatzeko, adibidez :

Autobusa ⇒ Txangoak egiteko eta ingurutik mugitzeko hurrekin leku berriak bilatzeko.

Aterpetxea ⇒ Oheak jarriko diren lekuan pribatutasuna izateko, lo egiteko, bainua hartzeko...

Jantokia ⇒ Jangela edo jantoki bat beharko dugu hurrek gune zehatz batean jan eta elkarrekin hitz egiteko momentuak partekatzeko eta sukaldatzeko.

kirol zelaia ⇒ Kirol zelaia edo guneak izango dira ariketak egiteko, jolasteko, kirolak egiteko, elkarbizitzeko eta talde lana sustatzeko.

Beste material batzuk :

Eskuargiak ⇒ Beharko ditugu gaua denean eta norbaitek komunera joango balitz eskuargia eskuan izatea ez erortzeko eta gaueko jarduerak segurtasunez egiteko.

Txistuak ⇒ Monitore bakoitzarentzat jarduerak zuzentzeko.

Baloia ⇒ Futbola saskibaloia bezalako kirol jardueretarako pilotak beharko ditugu jolasteko sareak bezala.

Bestalde gure kanpamendua eraginkorra eta errakargarriagoa izateko **baliabide intelektualak** beharko ditugu, adibidez:

Patentea ⇒ Gure kanpamendua da laguntza psikologikoa eta osasun mentalerako laguntza duen bakarra.

Kanpamendurako erabiliko ditugun giza baliabideak funtsezkoak izango direnak talentua kudeatzeko, langileen motibazioa handitzeko eta helburuak lortzeko, adibidez:

Entrenatzaileak ⇒ Kirol desberdinetan esperientzia duten profesionalak ipintzea gure ikasleei teknikak, gauzak berriak kirol horretatik irakasteko.

Monitoreak ⇒ Monitorek jarduerak gidatzen dituzte, ordena sustatzen segurtasuna bermatzen, laguntza ematen eta giro ona sortzeko kanpamenduan .

Psikologoak ⇒ Gure kanpamenduan dauden harruei laguntza mentala eskaintzeko, arazo baten aurrean eta bereizten diguna da.

Koordinatzaileak ⇒ Koordinatzaileak antolakuntza, segurtasuna, komunikazioa, lidergoa, laguntza, arauak, koordinazioa, esperientzia, motibazioa eta giroa hobetzen laguntzen dute.

Eta azkenik **finantza baliabideak** beharko ditugu kanpamenduaren antolaketa, ekipamendua, marketinga eta langileen ordainsariak finantzatzeko.

Baliabide propioak ⇒ Aurreko kanpamentuetatik lortutako irabaziekin erabilia.

Gizarte laguntza ⇒ Gure hiriaren gobernu bera edo erakundeek emandako diru-laguntzak

Partaidetza programak ⇒ Kirol programak edo elkarteek eskaintzen dituzten diru-laguntzak.

Gure proiektuaren funtsezko baliabideak oso garrantzitsusak dira baina gure elementu garrantzitsuena da gure kanpamendua beste kanpamentuetatik bereizten duen aspektu berezia, hau da giza baliabidea da, psikologia arloa kontuan hartzen duena , emozionala laguntza eta ongizate pertsonalerako tresnak eskaintzen dituelako. Psikologiak, gure parte-hartzaileen ongizatea sustatzen laguntzen digu, eta horrek eragin positiboa izan dezake kanpamentuko esperientzian. Bestalde, baliabide fisikoek ere garrantzi handia dute, gure kanpamenduaren funtzionamendua bermatzeko, eta horiek guztiak koordinatuta lan egiteak gure proiektuaren arrakasta lortzen laguntzen du. Horrela, giza eta fisikoen arteko oreka bat lortzen dugu, kanpamentuaren helburuak betetzeko eta gure umei leku erosoan emateko.